

Aurkibidea:	
1 Deskribapen laburra	1
2 Irismena	1
2.1 Helburuen analisisa	1
2.2 Irismena eta honen zabalpenaren analisisa	2
3 Aurreikusitako denborak eta desbiderapenak	2
3.1 Konparaketa	2
3.2 Aurreikusi gabeko lana	3
3.3 Desbiderapena	4
4 Garapena	4
4.1 Komunikazioa	4
4.2 Arriskuen aurreikuspena	4
4.3 Garapenean eginiko egokitzapenak	5
5 Kalitatea	5
5.1 Siko Proiektuaren kalitatea	5
5.2 PKko Proiektuaren kalitatea	5

Jon Dorronsoro Maioz

1 Deskribapen laburra

Aurreko dokumentuan zehaztu bezala landuko den proiektua SI ikasgaiko proiektu globala izango da, bai aurten entregatu beharrekoa bai aurreko urteko entregan egindako akatsen berrikusketa eta zuzenketa.

Gainera proiektuaren zabalpenerako proposamen bat gauzatzen zen zeinak hainbat aldaketa edo hobekuntza gauzatu nahi zituen proiektu originalaren gainean, ala nola datu base deszentralizatu, komisioen aldaketa edo dibisa kopuruaren zabalpena.

60 bat orduko proiektua aurreikusten zen hasiera batean eta, gora beherak egon diren arren, aurreikuspen totala nahiko egokia zela ondoriztatu da.

2 Irismena

2.1 Helburuen analisisa

Hasteko garrantzi azpamarragarrikoa ikusi da proiektuari esleitu zitzaizkion helburuak berriro gogora ekartzea eta hauen garapena analizatzea.

Hiru ziren esleitzen ziren helburu nagusiak, 3 mailatako softwarearen garapena barnetatzea, UML diagramen gauzapena ikastea eta proiektuaren memoria eta defentsa. Helburu hauei dagokienez esan beharra dago gaur arte garatzeko aukera izan ditudanak, defentsa kenduta beste guztiak, oso modu positiboan baloratzeko beharrean nagoela. Benetan uste dut barneratzeko gai izan naizela behar zen jakintza eta memoria txukun batean islatzen jakin dudala.

2.2 Irismena eta honen zabalpenaren analisia

Lehenik eta behin dokumentu honen idazte datan lehen bi mugarriak igaro dira eta hirugarrena falta da. Kontutan hartu ez zen garrantzizko puntutzat azpimarratu beharko litzateke entrega perfektu egotea ia ezinezkoa dela eta ondorioz entregatik entregara hainbat zuzenketa garatu behar izan direla, hurrengo atalean izango du garrantzia batez ere.

Zabalpenari dagokionez ikusita aurten diseinuko fasea hasiera batetik hobetu barneratu dudala, zuzenketa gehiago gauzatu behar izan dira lehen fasean bigarrenean baino. Aurreko urteko diseinuaren zuzenketei eskaini behar zitzaizkien denbora asko laburtu da, nahiz eta aurreikusten zen moduan oso aberasgarria izan den diseinu egoki baten garapena ondo barneratzeko.

Honi jarraiki aurtengo proiektuari zuzenean dagokion zabalpenean hainbat aldaketa gauzatu dira aurreikusten zenetik azkenean izango dena, edonola ere oraindik garatzeko denbora dagoenez posible da azkenean hauek ere inplementatzea. Ala nola hainbat dibisa mota ezberdinen inplementazioa garatu da, zehazki Yuan, Yen, Peso mexikarra, Korona txekiarra, Rubloa eta Rupia gehitu dira proiektura. Bestetik aurreikusten da zerbitzari deszentralizatuak inplementatu ahalko direla arazo handirik gabe, bi aste gelditzen baitira inplementazioaren entregarako. Alde txarretik begiraturik zuzenketei fase bakoitzari eragin dioten atzeratzea dela medio nahiko zaila ikusten da sukurtsal bakoitzak komisioa aldatu ahal izateko gaitasuna inplementatzea, nahiz eta ez den erabat baztertzen aukera hau.

3 Aurreikusitako denborak eta desbiderapenak

3.1 Konpareketa

Azpiko tauletan ikus daitezke hasiera batean egiten zen aurreikuspena (**BELTZEZ**) eta errealki azkenean izan dena (**URDINEZ**). Bai asteko helburua bai ordu kopurua eman dira aldaketak hasieran espero zenetik.

MARTXOA		
Astea	Helburua	Orduak
16-20 (8.a)	Egelako pdf-a irakurri eta ongi ulertu proiektuaren nondik norakoak	1'5
16-20 (8.a)	Ez da aldaketarik eman	=
23-27 (9.a)	Paperean lehen fasea garatu eta proiektu zaharra erreparatu	6'5
23-27 (9.a)	+ Irakaslearekin hainbat zalantza komentatu	+1'5

Zalantzek atzerapen nabarmena ekarri zuten email bitartez izan baitzen eta batek idatzi eta besteak irakurri eta erantzuten denbora joaten baitzen. Ala ere denborarako kontatu den bakarra zalantzaren erantzuna jaso eta hau ulertu eta inplementatzeko denbora izan da. Hau da email bat astelehenean bidali eta erantzuna asteazkenean jaso bada denbora hau ez da kontuan hartu.

APIRILIA		
Astea	Helburua	Orduak
30-3 (10.a)	Lehen fasea erreparasatu eta UMLra pasa	5
30-3 (10.a)	Ez da aldaketarik eman	-1'5
6-10 (11.a)	Diseinuko fasea garatzeko sekuentzia diagramak egiten ikasi	4
6-10 (11.a)	Ez da aldaketarik eman	=
13-17 (Aste santua)	UMLn sekuentzia diagramak egin eta zaharrak zuzendu	7
13-17 (Aste santua)	+ Lehen entregan edukitako akatsa zuzendu	+2
20-24 (12.a)	Klase diagrama egin eta zaharrak zuzendu	6
20-24 (12.a)	+ Sekuentzia diagramekin jarraitu	+2
27-1 (13.a)	Kodearekin hasi	10
27-1 (13.a)	+ Dokumentazioarekin hasi	+2

Lehen esan bezala lehen entregako zuzenketek eragindako atzerapena nabarmen ikus daiteke, horrez gain argi ikusten da hasieran egin zen aurreikuspena positiboegia zela eta errealki ordu gehiago beharrezkoak izan direla garatu beharreko lanak garatzeko. Gainera lana aurreratzeko asmoz egindako saiakerak hutsalak izan dira, finean aurrerago zuzenketa eta egokitzapen lanak burutzea ekarri baitu.

MAIATZA		
Astea	Helburua	Orduak
4-8 (14.a)	Kodearekin segi	10
4-8 (14.a)	+ Dokumentazioarekin jarraitu	+2
11-15 (15.a)	Kodea amaitu	10
11-15 (15.a)	+ Demoak probatu eta kodea pulitu	+1

Maiatzerako lanak aurreatugo izatea izan arren helburua egoerara egokitu beharra izan dut eta alde batetik ordu gehiago sartu behar izan ditut eta, bestetik, oraindik garatu behar, edo nahi, ziren hainbat atazeren garapena alboratu behar izan da egoera globala, beste ikasgaiek osatzen dutena, ere ez baita aurreikusia izan eta honek planak aldatzeko beharra ekarri du.

3.2 Aurreikusi gabeko lana

Nire ustez hau da punturik garrantzitsuenetako bat, honek erakusten baitu hasieran eginiko aurreikuspenak ez zirela behar bezain zehatzak izan eta kasu askotan positibismo faltsu batean oinarrituak.

Ikusi besterik ez dago proposamenean ez zela aurreikusten entrega bakoitzaren inguruan zuzenketa lanen gauzapenik eta, nahiz eta, lehen entregak bakarrik behar izan duen zuzenketa, espero ez zen ordu kopuru eta lan karga bat suposatu ditu luzera.

Horrez gain Covid 19ak ekarri duen egoera honek gauza asko jarri ditu hankaz gora eta aurreikustea oso zaila zen hainbat egoera ekarri ditu, ala nola hainbat ikasgaien plangintzan aldaketa handiak eman dira proposamenean kontutan hartu ezin zirenak.

3.3 Desbiderapena

Lehen entregari eskaintako hiru asteetan ez da aldaketarik eman, 9. astean 1'5 ordu gehiago behar izan ziren baina 10. enan 1'5 gutxiago beraz totalen ez zen aurreikusitakotik aldaketa handirik eman.

Bigarren entregako epeetan ikusten hasten da aurrez aipaturiko optimismo faltsua eta honek ekarritako kalteak. Lehen entregari gauzatu beharreko zuzenketek, egin beharrekoak aurrera jarraitu ahal izateko, 4 orduko desbiderapena ekarri dute.

Azken entregari dagokionez ez da soilik 5 orduko atzerepena izan duela, baizik eta proiektuaren proposamenean zehazturiko hobekuntzetako bat printzipioz alboratu izan dela, denbora izanez gero inplementatuko da aurrerago.

E1	E2	E3	TOTALA
0	4	5	9

4 Garapena

4.1 Komunikazioa

Proposameneko bideragarritasunaren atalean aurreikusitako moduan komunikazio guztia email bidez izan da. Nahiz eta idatziz ez naizen hain ondo moldatzen espero baina hobeto moldatu naiz ikuspuntu horretan.

Alderik negatiboa galdera-erantzun tarte izan da, ez baita berdina irakaslearen bulegora joan galdetzeraz edo email bat bidali, berak irakurtzeko zain egon, erantzuna irakurri eta zalantzarik badago prozesua errepikatzea. Honek asko zailtzen du zalantza sinpleenaren erresoluzioa eta une batzuetan aurrera ezin jarraitu ahal izatea ekarri du.

4.2 Arriskuen aurreikuspena

Arriskuen aurreikuspena oso positiboki baloratzen dut, sor zitezkeen arrisku gehiena aurreikusiak baitzeuden aurreko txostenean. Alde negatiboa aurreikusita zeuden arrisku gehienak erreal bilakatu direla eta honek garapena asko zaildu duela.

Lehen arazoa 15. asterako proiektua bukatzea zen, eta arrazoiarekin, ezinezkoa gertatu baitzait proiektu zabaldua aurreikusitako datetan amaitzea. Beste ikasgaiek eduki zezaketen pisua izugarri nabaritu da, batez ere aste santutik aurrera, hau da 12. astetik aurrera, bai lan kargaren igoera moduan bai ebaluazio saio berrien txertatze moduan. Komunikazioko atalean ere argi utzi da honen inguruan aurreikusitako arriskua.

4.3 Garapenean eginiko egokitzapenak

Azpiko taula ikus daiteke hasiera batean egiten zen garapenean planteamentua (**BELTZEZ**) eta errealitatean aurrera eraman dena azkenean (**URDINEZ**):

	8	9	10	11	A.S.	12	13	14	15	?
E1	X	X	X		X					
E2				X	X	X				
E3							X	X	X	X

Argi ikusten da nola, nahiz eta denboran ezberdintasun nabarmenak gertatu diren eramangarri bakoitzari eskainitako astekako planteamentua ia bere horretan mantendu den, aldaketa nagusia Aste Santuan lehen eramangarriari eskainitako denbora eta 15. asterako bukatu ezinak suposatzen duen proiektuaren luzaketa izanik.

5 Kalitatea

Kalitatearen atala bitan banatzea erabiki dut arrazoi sinple baten gatik, lehenik eta behin SI ikasgaiko proiektuaren garapenean inguruko ondorioak plazaratu nahi nituzke. Bigarrenik proiektu honen inguruan “eraiki” dudana beste proiektuaren, PK ikasgaikoa, inguruko ondorioak bildu nahi nituzke. Biak iruditzen baitzaizkit garrantzitsuak eta bien balorazioa gauzatzea beharrezkoa ikusten baitut.

5.1 Siko Proiektuaren kalitatea

Oraindik garapena amaituta ez dagoen arren, nahiz eta ikasgaiko gutxiengo eskaerak inplementaturik izan, hainbat ondoriotara heltzeko aukera izan dut. Hasteko proiektuaren helburuak ongi barneratzea lortu dudala iruditzen zait, oso positiboki baloratuz, aurreko urtean UML eta diseinua ez baintuen ulertu, eta are gutxiago barneratu. Ala ere azterketan ikusiko da uste dudana bezainbeste barneratu ditudan.

Bestetik egoera denarekin ahal nuen proiekturik txukunena egin dudala iruditzen zait, gainera hainbat hobekuntza eta gehikuntzarekin, eta honek arrotasunez betetzen nau. Gainera birritan aipatu izan dudana bezala ikasgai hau aurreko urtean suspenditu egin nuen eta aurten hain lan txukuna egiten aritea gauza benetan berezia da niretzako.

5.2 PKko Proiektuaren kalitatea

Hasteko gauzatu beharra izan ditudan txostenak egokiak eta nahiko txukunak direla esango nuke eta lan ona gauzatzeak beti ekartzen du poztasun bat. Alde negatiboari begiratuz aurreko entregako epeak ezin izan ditut bete eta 8 orduz desbideratu naiz. Ala ere arriskuak aurreikusteko gaitasun handia erakutsi dudala iruditzen zait.

Bestetik garapen guzti honetan PK ikasgaiean barneratu behar diren jakintzak barneratu ditudala iruditzen zait eta ikasitakoa entrega bakoitzean plasmatzeko gai izan naizela iruditzen zait. Modu pertsonalago batean ikasitakoa erabilgarria iruditzen zait etorkizunerako, batez ere GrAL-a bezalako proiektu handi eta luzeen plangintza gauzatu ahal izateko.